

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2025eko martxoaren 8tik 14ra bitarteko astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2025/03/11

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2025eko otsailaren 27koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira desgaitasunen bat duten pertsonei arreta emateko zentroen eta zerbitzuen XV. Hitzarmen Kolektibo Orokorren 2023. eta 2024. urteetarako hezkuntza bereziko ikastetxeen soldata-etaulak. **4805 xedapena- 8 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2025eko otsailaren 27koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita produktu kimiko industrialen eta drogeriako, lurringintzako eta haiei lotutako produktu kimikoen handizkako merkataritzaren eta inportatzaileen sektoreko hitzarmen kolektiboa. **4808 xedapena- 61 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2025eko otsailaren 27koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita landare-kontserben fabrikazioaren sektoreko Estatuko oinarritzako hitzarmen kolektiboari dagokion 2025eko behin-behineko soldata-etaula. **4810 xedapena- 3 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2025/03/12

- **EUSKADIKO ADMINISTRAZIOAK. EUSKO JAURLARITZA (EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA).** Salgaien errepideko garraioaren industriadako eta Arabako agentzietarako estatutuz kanpoko hitzarmen kolektiboaren 2025. urterako taulen berrikuspena. **709 xedapena- 5 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2025/03/08

- **EKONOMIA, MERKATARITZA ETA ENPRESA MINISTERIOA. Finantza-neurriak.** Ebazpena, 2025eko martxoaren 6koa, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinak eguneratzen baitu Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2017ko uztailaren 4ko Ebazpenaren 1. eranskina, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatu beharreko finantza-zuhurtasunaren printzipioa definitzen duena. **4616 xedapena- 3 or.**

2025/03/10

- **ZIENTZIAKO, BERRIKUNTZAKO ETA UNIBERTSITATEETAKO MINISTERIOA.** Animalien babes. CNU/120/2025 Agindua, otsailaren 3koa, zeinaren bidez aldatzen baita ECC/566/2015 Agindua, martxoaren 20koa, trebakuntza-eskakizunak ezartzen dituen saiakuntzak egiteko eta beste helburu zientifiko batzuetarako –irakaskuntza barne– erabilitako, hazitako edo hornitutako animaliak erabiltzen dituzten langileentzat. **2419 xedapena- 5 or.**

2025/03/11

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Animalien osasuna.** APA/229/2025 Agindua, martxoaren 10ekoa, mihi urdinaren gaitza dela-eta berariazko babes-neurriak ezartzen dituen. **4756 xedapena- 5 or.**

2025/03/12

- **TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Antolamendua.** 105/2025 Errege Dekretua, otsailaren 18koa, zeinaren bidez aldatzen baitira abuztuaren 14ko 1424/2008 Errege Dekretua eta ekainaren 5eko 948/2009 Errege Dekretua, Espainian desertifikazioaren aurkako borrokaren gobernantza indartzeko. **4822 xedapena- 4 or.**

2025/03/14

- **OGASUN MINISTERIOA. Zerga-bilketa. Erakunde laguntzaileak.** HAC/241/2025 Agindua, martxoaren 10ekoa. Honen bidez, honako hauek aldatzen dira: EHA/2027/2007 Agindua, ekainaren 28koa, partzialki garatzen duena uztailaren 29ko

939/2005 Errege Dekretua, zeinaz Diru Bilketako Erregelamendu Orokorra onetsi baitzen Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren diru-bilketa kudeatzen laguntzeko zerbitzua ematen duten kreditu-entitateei dagokienez; EHA/1658/2009, ekainaren 12koa, prozedura eta baldintzak ezartzen dituen zenbait zorren ordainketa helbideratzeko Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren diru-bilketa kudeatzen laguntzeko zerbitzua ematen duten kreditu-entitateen bidez; eta 1998ko ekainaren 4ko Agindua, Ogasun Publikoaren eskubideak diren tasak biltzeko kudeaketaren zenbait alderdi arautzen dituen. **5048 xedapena- 22 or.**

- **OGASUN MINISTERIOA. Zergak.** HAC/242/2025 Agindua, martxoaren 13koa, zeinaren bidez honako ekintza hauek egiten baitira: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren 2024ko aitorpen-ereduak onetsi; horiek aurkezteko lekua, modua eta epeak zehaztu; Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenaren zirriborroa lortzeko, aldatzeko, berresteko eta aurkezteko prozedurak ezarri; bi aitorpen horiek bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura zehaztu; eta abenduaren 20ko 7/2024 Legearen azken xedapenetatik hamaseigarrena garatu. Azken horrek honako zerga hauek ezartzen ditu: zerga osagarri bat, talde multinazionalentzat eta estatuko talde handientzat gutxieneko zergapetze-maila globala bermatzeko; zenbait finantza-erakunderen interes eta komisioen marjinaren gaineko zerga; zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga. Bestalde, hamaseigarren xedapen horrek beste zerga-arau batzuk ere aldatzen ditu. **5049 xedapena- 84 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2025/03/12

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 93/2025 Foru Agindua, otsailaren 25ekoa. Onestea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, ondarearen gaineko zergaren eta fortuna handien aldi baterako elkartasun zergaren 2024ko ekitaldiko aitorpenak aurkezteko arauak eta modalitateak. **606 xedapena- 5 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2025/03/14

- **LURRALDE OREKA BERDEKO DEPARTAMENTUA.** FA-OB-2025-0216 Foru Agindua, martxoaren 11koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan arrantza kontinental eta arrain-espezie exotiko inbaditzaileen kontrola arautzen dituen 2025. Denboraldirako. **2006 xedapena- 14 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 91/2025 Foru Agindua, martxoaren 10ekoa, 2024ko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga eta fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga autolikidatzeko erabiliko diren ereduak onetsi, eta horiek aurkezteko eta diru-sarrera egiteko modu, epe eta tokiak ezartzen dituen. **1949 xedapena- 26 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO